

ZER ESKAINIKO DIOGU JOLASTEKO?

“Funtsezkoa da haurrak bere kasa ahalik eta gehiena deskubritzea. Zeregin bakoitzean laguntzen badiogu, bere garapen arlorik garrantzitsuena kentzen diogu”. EMMI PIKLER.

Neguko solstizioa hurbil daukagu eta badakigu garai honetan haurrei opariak egiten dizkiegula. Baina, gure haurrentzat erakargarria den zerbait aukeratzen badakigu? Erosten dizkiegun jostailuak adinerako aproposak dira? Bere garapenean lagunduko dute? Galdera hauek askotan etortzen zaizkigu burura horregatik, hemen dituzue kontuan hartzeko ideia batzuk.

Dakizuenez, Audio Txikiko oinarrietako bat jolas autonomoa da. Haurrari modu natural batean garatzen uzten diona. Jolasa ez da helduok gidatzen dugun zerbait, haurrak berez martxan jartzen duena baizik, bere jakinminetatik abiatuta.

Askotan haurrek etxean jolaserako espazio bat izaten dute eta espazio hori nola egoten da? jolasteko gogoak sortzen dituela uste duzu? Jostailu gehiegi izateak jolasa oztopatzen du, horregatik hobe da etxean ditugun materialak txandakatzea, umearentzat erakargarriak bihur daitezten eta jolasteko espazio horrek goxoa, antolatua eta erakargarria izan beharko luke.

Eta guztietan jolasaren erdigunea umea izan beharko litzateke. Horregatik, jostailu “itxiak” eskaintzen badizkiogu, haurra ikusle hutsa bihurtuko da. Baina, zer dira jostailu itxiak? jostailuak berak dena egiten duenean, adibidez, pilen bidez funtzionatzen dutenak, hau da, musika egiten dutenak, mugimendua berez egiten dutenak, argiak eta soinuak emititzen dituztenak... Jostailu hauen aurrean haurraren



funtzio bakarra botoi bat edo batzuk sakatzea eta begiratzen egotea izango da. Aldiz, haurrari bere kaxa objektu ezberdinak deskubritzeko aukera ematen diogunean, era ezberdin batean ikasten dituzten gauzak, barneratu egiten baititu. Ildo honetatik jarraitu nahi baduzue, aukeratzen dituzuen opariak jolas autonomoa aurrera eraman ahal izateko ezaugarriak dituztenak izan daitezela.

0-6 hilabete



Jaioberria mundua ezagutzen hasi da eta bere lehen jolasa, eskuetatik abiatuta gorputzarekin izango da. Jolasaren bidez bere gorputza deskubritzen joango da.

Horretarako, leku lasaia eta bere mugimendu askea ahalbidetzen duena beharko du. Horrez gain, lurzorua gogorra izateak bere mugimendua erraztuko du.

Lehen haurtzaroan kontaktu fisikoa garrantzi handikoa izango da, beraz, helduarekin hartu emanak ezinbestekoak izango dira haurraren garapenerako (heldu eta umearen arteko begiradak, hitz gozoak, laztanak, masajeak, kulunka jolasak, kuku jolasak...).

Ahozko fasearen hasiera honetan, haurrak dena ahora eraman nahi du (bere atzamarra, bere oina, objektuak). Azken finean haurra mundua deskubritzen ari da eta dastamenaren bitartez informazio asko jasotzen dute.

Zer behar du?

Inguruan duenarekin lehen kontaktuak hasiko dira. Behar dituen objektuak naturalak izango dira; egurra, silikona, metala, testura ezberdinetako oihalak, zumezko objektuak, ... anitzak eta egunerokoan erabiltzen ditugun ohikoak izan behar dira.



Esku batekin eutsi ditzakeen objektuak eskaini. Eskuak kontrolatzen dituela ikusten dugun heinean, objektu desberdinak eskaintzen joan gaitezke. Haurrari jolasteko aukera emateko bere ingurutik bi edo hiru objektu ipini, horrek begiak eskuekin koordinatzen lagunduko dio.



Adibidez, arandelak, sakutxoak, oihalak, goilaratxoak, flanerak, orrazi txikiak, pote tapak, brotxak, giltzak... Hauek material sensorialak izanik, esploratu, haginka egin, eutsi, kolpatu, bota eta beste gauza asko egiteko aukera emango dio.

Objektu mota hauek bere adimena garatzeko, zentzumen desberdinak pizteko eta bere gorputza ezagutzeko baliagarriak izango dira.

6-12 hilabete

Haurren arreta eta pentsamendua pizteko tresnak ukimena, ikusmena eta entzumena dira. Etapa honetan, eskuekin eta begiradarekin kontrol gehiago izango du eta objektuak kolpatzea, botatzea eta berriro hartzea gustatuko zaio. Orain objektuekin interakzioan hasiko da eta jakinminaren bitartez erabilpen desberdinak aurkituko ditu.

Jolasak errepikatzeak plazera eta segurtasuna ematen die, dakitena bermatzen dute. Haurrari bere inguruko objektuak esploratzen eta mugimendu aske bat izaten utzi behar diogu, jolasa eta gorputzaren bitartez gauza asko adierazten dituzte.

Zer behar du?

Momentu honetan tamaina ezberdinetako ontziak-kutxak-saskiak-kuboak eskaintzea interesgarria izango litzateke. Hauek metalezkoak, egurrezkoak, zumezkoak, ... baldin badira jolasa aberasgarriagoa izango da, material bakoitzak mundua deskubritzeko informazio desberdin bat emango dio.

Ontzi hauekin trasbaseak egin ahalko dituzte. Hauen bitartez objektuak saski-kutxetan sartu-atera, kutxak hustu-bete, eta materiala elkartu-banatu...dezakete.

Adin honetan pilotak oso aproposak dira, mugimendu gehiago eskainiko dio, bota, bere atzetik joan eta berreskuratzeak aukera ematen dute.



1-2 urte

Mugimenduak garrantzi handia du; dena ukitu behar du eta leku guztietara iritsi, horregatik espazioan barrena ibiltzeko aukera emango dioten jostailuak beharko ditu.

Gauzak adierazteko hitzak erabiltzen hasten da eta hiztegia handitzen doa. Haurrak, jolasten duen bitartean, heldua behatzen dagoela sentitzeko beharra dauka eta egiten dituen lorpenei hitzak jarri ahal dizkiegu. Urtea betetzen duenean objektu berberarekin denbora gehiago egoteko gaitasuna garatzen hasiko da.

Etapa honetan, objektuak multzokatzen hasiko da, honek beranduago sailkapenak eta kolekzioak egiten hastea ahalbidetuko dio. Objektuen ezaugarriez ohartzen hasiko da, begirada batekin badaki adibidez bat bestearen barruan sartu daitekeela. Espazioa esploratzeko grina ere izango du eta etapa guztietan bezala bere mugimenduan

askatasuna eman behar zaio. Bere jolasa ahalik eta gutxien oztopatu eta bakarrik esploratzen utzi bere pentsamendua saiakera/errorearen bidez garatu dezan.

Zer behar du?

Kutxa handiak edo arrastaka eramateko aukera ematen dioten objektuak asko erabiliko dituzte, kartoizko kuxak aukera asko emango die, barruan sartu, arrastaka eraman, etxetxoak sortu... Suntsipen jokoak ere beharrezkoak izango dira; bloke dorreak, apurtzeko paperak... hauek sentimenduak adierazteko tresna on bat dira baina berriro ere hurrei jolasten utzi behar diegu, beraien jolasa oztopatu edo gidatu gabe.

Mota askotako materiala eskaini al zaio, beti bere interesetatik abiatuta eta bere jolas mota aztertuta. Interesgarriak dira, mantak, oihalak, kuxinak... Kalera ateratzen garenean parkeek ematen dizkiguten aukerez gain, haurraren mugimendurako interesgarriak diren oinarri inklinatuak, eskailerak, plataformak, barra bertikal eta horizontalak... aurkitzen ditugu, hauek ere interesgarriak izan daitezke.

2-3 urte

Bi urtetik aurrera, umeak edozein objektuari bizitza emango dio, beste edozer izango balitz bezala. Bere jolasak emozionalki inplikatzaren diren horretan eta egunerokoan ulertzea oso zaila egiten zaiona, sortzea eta ikastea ahalbideratuko dio.

Haurraren autonomia mailak nabarmen egin du gora; bere gorputza hobeto ezagutzen du eta hobeto kontrolatzen du bere ingurunea. Gauzak bera bakarrik egiteko beharra du, autonomia aukera bat izan behar da eta ez beharra. Lengoia ere hobeto menderatzen du eta etengabe imitatzen ditu helduen ondoan bizitakoak. Beste hurrekin egoteko gogoia izango du, askotan beraiek ezagutzeko gerturatuko da eta helduekin ere egon nahiko du.



Zer behar du?

Adin honetan mugimenduaren plazerra sentitzen du, mugimendua haurraren garapenerako beharrezkoa eta oso garrantzitsua da, gozagarria izateaz gain etorkizuneko ikaskuntzak eskura jarriko dizkio.

Imitazioaren bidez ikasten du, beraz, horretan lagungarria izango zaizkion materialak eskainiko dizkiogu, gure egunerokoan erabiltzen ditugun gauzei (adibidez giltzari bat) izugarritzko etekina ateratzeko gaitasuna izango du. Objektu bateri erabilera asko emateko

gaitasuna daukate, lehenik eraikitzeke erabili dituenak gerora ontzi batean sartuta makarroiak izango dira.

Horregatik adin honetan eraikuntza piezak, oihalak, panpinak, kuxinak, animaliak eta ontziez gain kutxa handiak edota karrotxoak interesgarriak izan daitezke. Eraikuntza jokoak ere eskainiko dizkiegu, blokeak, dorreak egiteko jokoak...

Margotzeko aukera eskaini nahi badiozue, kontuan hartu hasteko euskarri bertikal batean margotzea izango dela aproposena. Papera ahalik eta handien izatea garrantzitsua izango da, eskua eta besoaren mugimendua mugatuta ez egoteko. Haien pentsamendua behar bezala garatzen laguntzeko euskarria zuria izan behar du, adin honetan ez baitaude prest lerrotik atera gabe, figura baten barrukoa margotzeko. Honek ez die askatasunez adierazten uzten. Aldiz, frustrazioak eta aspertzea eragingo die. Margoak, klarionak, ... bere adinerako aproposak izan behar dira, hau da, bere eskuaren tamainarekin proportzionalak, eusteko eta maneiatzeko errazak (txikiak, potoloak, indarrik egin gabe margotzen dutenak, ...).

Zer da kontuan hartuko dudana opariak aukeratzerakoan?

- Ez aukeratu haurra ikusle gisa jarriko duen jostailurik. Gogoratu haurra etapa zehatz batean dagoela, eta etapa horretan; eginez, ukituz, mugituz, bere gorputza erabiliz, zurrupatuz etab. ikasten duela. Zure haurrak ez du ezer ikasten argiak, soinuak edo modu automatikoan desplazatzen diren objektuak behatzen egoera hori bere pentsamendu mailarentzat ulertezina baita.
- Jostailuak erresistenteak izan behar dira, hau da, zentzuzko erabilera denbora bete beharko dute. Materialak hauskorrak edo kalitate txarrekoak direla uste baduzu, ez erosi.
- Jostailuaren itxurak eta jolaserako proposamenak koherenteak izan behar dute haurraren adinarekin. Batzuetan adin espezifikorako gauzak aurkitzen ditugu merkatuan baina, zure ustez hartzailearen ezaugarriekin bat ez badator ez erosi.
- Haurrak jostailuak modu erosoan maneiatzeko aukera izan behar dute, askotan hori ez da horrela izaten eta laguntza eskatu behar dute. Normala da batzuetan laguntza eskatzea baina jolastu ahal izatea ez da helduaren esku egon behar. Modu erosoan ezin izango duela erabili uste baduzu, ez erosi, bilatu errazagoa den bat.
- Gogoratu haur guztiek beharrak dituztela eta mota guztietako jolasez disfrutatzeke eskubidea dutela. Bere gogoia eta bere beharra asetzen duen materiala eskaini.
- Hartzaileak gustuko izango ote duen eta harekin dibertituko ote den pentsatu behar dugu. Pertsona bakoitza desberdina denez, batzuentzat motibagarria dena

besteentzat ez da izango. Interesik ez duela uste baduzu, nahiz eta zuretzat aproposa izan edo berarekin asko ikasiko duela uste baduzu, ez erosi.

- Haurrak askatasun aukera handiak behar ditu bere gaitasunak arakatu, ezagutu eta hedatzeko, nahiz eta hilabete gutxiko haurra izan. Gimnasio, mobil edo parke itxi batek, objektuaren miaketa, gorputzaren motrizitate globala eta manipulazioa mugatzen eta oztopatzen du. Zure haurraren mugimendua mugatzen duten gauzak ez erosi.

Beraz, zuen hurrei zer eskaini zalantzak badituzue, lehenik eta behin haurra jolasean dagoenean behatzeko denbora har ezazue. Hurrek, jolasten dauden bitartean, haien pentsamendua garatzen dute eta guk, haurrak behatzen ditugun bitartean, haien beharrei buruz asko ikasten dugu.

Askotan ez dute ezer berezirik behar ezta erositako jostailu sofistikaturik, etxetik dauden gauzak edo naturan topatzen ditugunak aukera anitz ematen dituzte. Orduan pentsatu eta behatu, zerekin jolasten dira gure haurrak?

Laudio Txiki